

bidegileak



Juan Bautista Bilbao *Batxi* (1887-1916)

Egilea:

IÑIGO ARANBARRI

Arratzuko semea

Juan Bautista Bilbao Elgezabal, *Batxi*, 1887ko irailaren zazpian sortu zen Gernika ondoko Arratzun. Bataioko agiriak dioenez, Elexalde auzoko 27 zenbakiko etxearean lehen solairuan. Aita, Saturnino Bilbao, kaxakoa, errementari aritzen zen *Goro-Etxabarri* baserrian. Ama, Ana Josefa Elgezabal, Lumokoa zuen.

Gernikatik lau kilometro t`erdira dago Arratzu, eta Kortezubi, Mendata, Nabarniz, Ajangiz, Gernika eta Forua



Juan Bautista Bilbao *Batxi* (1887-1916)

ditu muga. Golako ibaira biltzen dira Arroila, Gaztuxetuelaga, Olerre eta Lupiola mendietatik jaisten diren erreketako urak. Laborantza, abelazkuntza eta basoa izan dira arratzuarren bizibide. Bere garaian bost burdino-la, hamasei errota eta telleria bat ere izan zituen.



Arratzuko udaletxea

Gaur 390 eta 1900ean 800 bizilagun zituen Arratzu honetan jaio zen Juan Bautista. Baina, Bizkaiko beste askok bezalaxe, oso gazterik jo zuen itsasora, errementaritzan baino bizimodu oparoagoa izango zuelakoan.

Ez dakigu gauza handirik idazlearen haurtzaroraz. Eta dakiguna, bere kroniketan dioenetik dakigu. Dirudienez, hamaika-hamabi urte zituela hasi zen ontzietan, txo edo *mutil-txiki* lanak egiten. Hala eman bide zituen bi mende-

en arteko lehen urteak. Gazterik ezkondu zen Mendatako Jesusa Zabalorekin. Hiru alaba izan zituzten: Jesusa, 1906an jaioa; Marina, 1910ean; eta Miren, 1913an.

Kontzientzia abertzale handikoa, Gernikako batzokiaren inguruan aurkituko dugu hama-lau-hamabost urte zituela. Sabino Arana bere teoriak zabaltzen hasia zen, eta Batxi gertu dago Maisuarengandik. Alabek esatera, haren gutunak ere ba omen ziren etxean, gerrarekin



Arratzuko eliza

galdu zirenak. Tartean-tartean, eta behar kontuak zirela eta, Erandio Beherara ere hurre-ratzen zen.

Itsasoan eman zuen denborarik gehien, ordea, maiordomo lanetan (*hornikari* erabili-ko du berak beti). Ontzirako behar ziren tres-na zein janariak erosteko ardura baitzuen, besteak beste. Bilbon, lana zegoen zamaon-tzietan, eta asko ziren mende hasieran burdin esportazioa zela eta bertatik ari ziren on-

tzietxeak: Bat, Uriarte, Vascongada, Bilbaina, Nervion, Sota... 1914an, Gerra Handia leher-tzen delarik, irabaziak eurrez handituko dira. Badago arrazoirik. Britainia Handia, Bilboko ontzien jomugarik ohikoena, Alemaniaren kontrako gerran dabil, eta arriskua garesti ordaintzen da. Fleteak sano gora egiten du. Gerrarekin, Cardiffera egindako itsasketa bakarrez ordaintzen da ontzia. Adibide bat jartzearren, Batxi langile izan zuen Sota y

Aznar konpainiak, %6ko mozkinak izan zituen 1910ean. Sei urte geroago, gerraren erdi-erdian, berriz, %112koak izan ziren irabaziak.

Gizakiaren gainean eraikitako enporio honek bazuen, ordea, zegokion ordaina. Alemaniak urpekuntziz eta minaz josi zuen Bizkaiko Golkoa, eta ez ziren bi izan hondora joan ziren ontziak. Ehunka euskal marinel hil zen horrela.

1916ko urtarrilak 16 egun zituen Bayo, Lezama y Compañiako Bayo ontziak Fran-

tziako Palice-tik 40 miliara zegoen mina aleman bat jo zuenean. Garaiko prentsari kasu egiten badiogu, gizon bakarra salbatu zen, pilotua, Josu Azkune Markaida algortar pilotaria. Hala idatziko du Batxiren adiskide min zen Kirikiñok *Euzkadi* egunkarian:


Ontzia aida batean urperatu zan oso apurtuta, barruan egozanai ezetariko astirik emon barik, eta berori urten zan azalera zori ikaragarritz.



Juan Bautista Bilbao eta Jesusa Zabala senar-emazteak

Batxi bere gelan harrapatuko zuen leherketak, kamainatik jaikita, irakurtzen edo idazten. Hala egoten omen zen egunero goizeko seietatik bederatziak ingurura arte. Hogeitazortzi urte zituen.

Hurrengo egunetako egunkari abertzaleek (*Euzkadi*-n eta *Napartarra*-n batez ere) Batxi-ren gomutaz Eleizalde, Kepa Enbeitak, Kiri-kiñok eta abarrek idatzitako artikulua jasotzen dituzte. Aranaren oinordeko legez geratu den Luis Elizalde bergarar idazleak



Batxi-ren jaiotza-agiria



Jesusa, Marina eta Miren hiru alaba txikiak



Zabala-Bilbaotarren garai bateko etxea Mendatako Albitzen, orain eskualdatua eta eraberritua

gertakariaren berri eman eta atoan, diru bilketa publikoak antolatzen dira familiari laguntzeko. «Gaur meza Batxiren alde» iragartzen du urtarilaren 23ko *Euzkadi*-k. Ez da gutxiagorako: egunkari jeltzaleak kronikagile onena galdu du.

Jesusa Zabala Bilbao hamar, sei eta hiru urteko hiru alabekin geratzen da alargun. Ezeren eskasirik gabe bizi zen familia premia larrian utzi du Batxiren heriotzak. Jesusak denda txiki batean eta inguruetakoko baserrietan egiten du lan familia aurrera ateratzeko. Alabek ere,

kozkortu ahala, haurtzain jardun beharko dute.

Aldirik okerreana gainditua zutenean, ordea, berriro zoritxarrak jo zituen: 1936ko gerrak. Frankistek Gernika erre eta erraustu zutenean, Jesusa Zabala alargunak Gernikatik Iparraldera ihes egingo du Jesusa eta Mirenekin, 30 urteko alaba zaharrenarekin eta 23ko gazteenarekin. Marina, 26 urtekoa, berriz, Bilboko osabaren etxera joan zen. Batxi hil zela hamar urte beteak izan arren, Aranaren eta orduko abertzale suharren lagun mina zen



Jesusa Zabalak Iparraldera ihes egin behar izan zuen frankistek Gernika suntsitu zutenean



Batxi eta Jesusaren ondorengoak

Bilbao-Zabala familiak ihes egin beste erre-mediorik ez zuen okerragorik gerta ez zekion. Edonorentzat ere ez da bizimodu erraza dena utzita kanpora joan denarentzat, baina hiru emakumerentzat are eta gaitzagoa gertatu zen Iparraldeko txangoa. Eta gerra ondoko girorik petralena zerbait baretu zenean berriro Gernikara itzultzea erabaki zuen Jesusa Zabala alargunak. San Juan kalean bizi zen Jesusa bere alabarekin eta Eduardo bere suhinarekin.

Jesusa alabak eta Eduardo suhinak ez baitzuten seme-alabarik izan, haiekin mutikotan alditxo bat egin zuen Juan Bautista Izarra Bilbao biloba zaharrenak gogoan du oraindik bere amama argi eta maitagarria, perlesiaren ondorioz herrenka ibiltzen bazen ere, orduak egiten baitzituen elkarrekin jokoan. Zaharrenak bilobarik ez bazion eman ere, beste bi alabek, Marinak eta Mirenek, hamahiru eman zizkieten. 1948an hil zen Jesusa Zabala, Batxiren alarguna. 65 urte zituen.

Batxi idazle

Euskal idazleen arteko bilera historiko bat egin zen Zornotzan, 1914ko urriaren 25ean, batzoki ondoan zegoen Bernarta Aurtene- txeren jatetxean. Azkenean makalik zebilela eta agertzerik izan ez zuen Kepa Enbeita *Urretxindorra* irrikitan zegoen, antza, urriaren 5erako sei bertso paratu baitzituen *Euzka- din*, bazkaria zela eta.

Batxi zolija euzkel idazle,
itz-neurlaria ganera,
bazkari onen asmatzallia...
Mutila ona dok, ba, bera!
Idazle orok ezautu nai dauz
baturik toki batera,
beren arazo gustijak dira
goralduteko Euzkera.

Izan behar du udaletxe alboko horman, harrizko jesarleku bat zegoen tokian aterata- ko argazkiren bat ere nonbaiten. Bazkari-bile- ran, erabaki garrantzitsuak ere hartu ziren, dirudienez. Isaak Lopez Mendizabalek eskatu- ta, euskal egunkari, aldizkari eta liburuak igortzea ebatzi baitzen 14ko gerran zauritu eta Parisko ospitaletan ziren Iparraldeko anaia soldaduei. Batxi, Lisboatik ekarri zuen ontziak gaua Bilboko Abran emanda, berandu heldu zen. Bazkaltiarren artean gustura hartu ziren *isabela* filipinar txokorrak banatu, eta bihotza ahoan zuela hitz egin zuen. Aberria- rekikoak ikas zitzaten nekazarien artean banatuko ziren euskal orriak egin ahal izateko



Kepa Enbeita Urretxindorra, Batxiren goraipatzailea

dirua batzeko lehenik. Itsasaldi luzeetan ida- tzitako poemak ahoz gora irakurtzeko gero. Hunkiturik uzten ditu denak. «Onek Batxik autsak daukoz», idatziko du mahaiburu zen Kirikiñok.

Ordurako, idazle zen. Urtebete abantzu zera- man *Napartarra*-rako eta *Euzkadi*-rako artiku- luak egiten. Eta hala idatziko du, emankor- tasun ikaragarritz itsasoan lanean dabilen batentzat, ia berrehun artikulua bi urte pasa- txoan. Kronikak ia beti. Batzuetan, etxean



Sota eta Aznar konpainiaren itsasontzia



Compañía Naviera SOTA Y AZNAR
BILBAO

LINEA DE LA ARGENTINA
SERVICIO MENSUAL RAPIDO

Hacia el día 17 de septiembre saldrá de Bilbao el vapor de 9750 toneladas de carga,

“Altuna-Mendi”

directamente para BUENOS AIRES y ROSARIO SANTA FE, admitiendo carga para dichas puertos.

Para carga y demás referencias dirigirse a los
SRRES. SOTA Y AZNAR, Apartado 13, BILBAO

COMPANIA NAVIERA
SOTA Y AZNAR
BILBAO

Servicio mensual de cabotaje entre los puertos de Pasajes y Barcelona e intermedios.
Servicio rápido quincenal entre Pasajes, Bilbao, Santander, Vigo, Sevilla, Málaga, Alicante, Valencia, Barcelona y viernes.
Líneas regulares de rápidos y modernos vapores de carga entre los puertos de Glasgow, Liverpool y Swansea y toda la Península, y de Hamburgo, Rotterdam, Amberes, Bilbao y Gijón a Montevideo y el Río de la Plata.

Para toda clase de referencias dirigirse a las oficinas de la Compañía:
Apartado número 13, Bilbao

Buenos Aireseko bidai bat eta Sota-Aznarren beste baten iragarkiak

dagoenean, Euskal Herritik bertatik (Busturiatik, Arbazegitik, Gernikatik, Erandiotik, Barakaldotik...). Bestetan, eta sarriago, munduko portuetatik (Cardiffetik, Lisboatik, Sfaxetik, Rotterdamdik...). Idazlea denez, maite du memorian ere araka aritzea, eta urrunago garamatza, Buenos Airesera, Hegoafrikako Durbanera... *Susa* argitaletxeak argitaratu zituen kronika hauetako asko *Hau mundu arrano hau* liburuan. Tartean, eta batez ere saio gisa, Batxik badu fikzioa eta detaile autobiografikoak nahasten dituen ipuin bat edo beste (*Euzkadiko ipuñak, Erri sekulakue!*). Tamalez, hauetan ez du kroniketan ematen duen mailarik erakusten ordea.

Kroniken artean, bada alderik batetik bestera. Etxean dagoenean, pisu zaio aberria, eta igarri egiten da. Alderdiaren alde idaztera ikusten du behartua bere burua. Proselitismo nahi larregi nabari zaio. Esan beharrak lotzen dio eskua. Karlistak batetik –*piparpotoak* deitzen die berak–, klean nagusitzen ikusten duen erdara bestetik, abertzaleen eginbeharra nonahi... eta tartean, zertzelada kostunbrista asko. Dena den, lan interesgarriak osoaldi hartako giroa ezagutzeko. Estimatzaren apunte zorrotzak tartean. Baina estiloari erreparatuta, ez hain idazle, ez hain berezi. Bada horrelako idazle gehiago garaiko abertzaleen kazetetan herrietako berri ematen.



Kirikiño, Batxiren mireslea, Bilboko *Juventud Vasca*-n hitzaldia egiten, 1914an



Hau mundu arrano hau liburuaren azala

Bestelakoak dira atzeritik kablegramaz Bilbora igortzen dituen lerroak. Hauetan ikusten da ondoen, duda izpirik gabe, idazlearen eskua. Bada honetarako arrazoirik. Euskal Herriatik kanpoko portuetan, Batxik libreago ikusten du bere burua. Cardiffen ez dago Barakaldon dagoen batzokia, Savonan ez dago Gernikako feriarik, Tunisiako Sfaxen ez dago karlistarik. Distantziak libreago egiten du Batxi idazlea.

Atzerriko kroniketan, euskal irakurleari erakusten dizkion paisaiak, erakutsi beharrekoak

dira. Errazagoa zuen postal hutsean gertatzea, portuen zein urruneko herrien deskripzio soila ematea euskal irakurleari. Ez du hautu hori egiten, ordea. Paisaiak, badira, baina jendea dabil batetik bestera. Eta pertsonaiak ongi marrazturik daude, kostunbrismo errazetik haratagoko izaera dute. Eguneroko gertakariak fikzioaren baliabideez aberasten dira, errealitate konplexua azaldu arte sarritan, hain konplexua non albo batera uzten dituen Euskal Herriko kroniketan erabili dituen kategorizazio errazak eta moralismo merkeak.

Kronikagile

Gaur egunetik begiratuta, zinez begitanzten zaigu ezohiko idazlea Batxi Bilbao. Izan ere, nondik sortua da XX. mendearen hondarrera arte inongo euskal literaturaren historiatan agertzen ez den kronikagile hau? Ez da erraza ulertzen. Are gutxiago kontuan hartzen badugu azaldu nahi zuena azaltzeko, erreferentziarik gabe ari zen idazlea zela. Zeren, nor zuen aitazindari? Nor bidegile?

Lehen Mundu Gerrak utzi digu testu gogoangarririk. Hor dira Frantzia eta Belgikako muga, gerla fronteant Jean Elisalde, *Zerbitzari-k*, Jean Saint-Pierrek



Napartarra astekarira bidali zituen zenbait lan

edota Jean Etxepare mirikuak idatzi eta *Esqualduna*-n argitara eman ziren kronikak. Hegoaldeari dagokionez, Kirikiñok ere badu gerraren gaineko artikulua ederrik, baina *Euzkadi* egunkariko bulegotik idatziak dira denak, Bilbotik. Iparraldekoak alde batera uzten baditugu, lubakietatik ez, baina gerran dagoen Europatik idazten duen lehen kronikagilea dugu Batxi.

Itsasoa, berriz, azaldua zen, gai bezala, bi idazle handiren lanetan. Bizkaieraz idatziak biak, gainera. Hor zituen Txomin Agirreren *Kresala* ez ezik (1901) Etxeitaren nobelak ere (*Josecho*, 1909; eta *Jayoterrri maitia*, 1910). Baina eleberrietan barik, Batxik gurago du laburrean aritu. Kronika du neurri. Kazetaritza eta literaturaren eremu horretan, adiskide min izango zuen Kirikiño zuen, zalantzarik gabe, urren. Mañariarrak ez zuen artean libururik, baina Batxiri ezagunak zitzaizkion hark prentsan

emandako *abararak*, halako umorezko perla txiki haiek. Biak ala biak, hurrekoak ziren nola politikan –jeltzaleak bata zein bestea–, hala idazkeran, neologismo aranisten eta herri hizkeraren uztarketaren aldekoak. Zenbait arlotan, oso antzekoak egiten zaizkigu biak. Erakusten duten munduak bereizten ditu.

Batxik ez du, Kirikiñok bezala, egunkari bateko bulegotik idazten. Mundua du bulego. Euskal literaturan estrainekoz, marinel batek ezagututako portuetan aurkitzen duenaren

berri ematen du. Garaia ere, horrelakoxea da. Mende hasiera da, eta sortzen ari diren makina berriak ikusten dituen lehenbiziko euskaldunetakoa da: dirua botata jatekoa ematen duten makinak Cardiffen, gerra hegazkinak Glasgoven...

Lehorrera jotzen duelarik, kosmopolita da Batxiren mundua. Music-hallak ezagutzen ditu, sufragisten artean paseatzen da, zinemara edota sumendiei buruzko hitzaldietara doa... eta ilajeagatik, mintzaeragatik, alemaniarra dela pentsatu eta atxiloturik darama britainiar poliziak Eskozian, bere aurpegiarekin afixak egin ostean! Horra garaiko gainerako euskal idazleek erakusten ez duten mundua.

Horra Batxi Txomin Agirreren infernuaren bihotzean, gizon.

Pasarteak bai, baina batez ere Europa asaldatuko duen gerraren lekuko da Batxi, nondik, eta gerran dauden herrialdeetako portuetatik. Batean eta bestean, prestaketak ikusten ditu, ontziak kanoiez janzen, soldaduak eri ekartzen, eta hirietako antzokietan, Euskal Herrirako nahiko lukeen abertzaletasuna pil-pilean. Gertakari hutsek baino, pertsonen bizikizunek dute deitzen, ordea. Historia konkretizatzen ari zaigu, giza dramaren indarra agertzen.

Laguntza billa etorri jatan emakumetxu bati itaundurik bart ia zegatik ez dabezan argi



Santiago Aranaren ontziola

banaka batzuk ixiotuten, erantzun eustan egaizkiak au erriau ikusita bonbardeau ez daiten dala. Olan bizitekotan barriz –inostan–, oba baten doixtarren tramankuluak etorriko balitzaz eta erre une baten, asi alderdi baten ta bestera. Gero emakume onek esan eustan gixona bizi ta gudatean egoan arte eguneko 1'10 emoten eutsola gobernuak, eta oraintxe ilabete artu zala il-albiste, eta ordutik ona ez deusola inok ezebe emoten.

- Nire gizontxuak Aberrijagatik emon eban bere bizija –inostan negarrez–. Aberrijak barriz saritu bear ninduan eroan eustalako betiko neure laguna, baña Aberrijak ezer ez damost, ta ez dago beste urterarik edo...edo laguntzatxu bat aterik ate eskatu (Savonatik, 1915eko uztailaren 20an).

Hor agertzen zaigu inoren laguntzarik gabe, hamabi urte dituenetik itsasoa besterik eza-gutu ez duen marinela, idazle. Bere lanak egunkarietan argitaratu arren –ez zuen libururik egundo argitaratuko–, idazlea baita batez ere, kazetari baino. Artikuluok salatzen dute azalpen hutsetik haratago jotzen duenean, anekdotak bete ez, eta pertsonen bila, hauen bihotz-mintzetara abiatzen dela. Alde honetatik, fikzioaren teknikak kazetaritzara ekartzen dakien oso-osoko idazle baten aurrean gaude. Lautasunari itzuri, bere obra erregistro askotan antolatua utzi digun idazlea dugu Batxi Bilbao.

Erregistro aberatseko idazlea

Bere obra erregistro askotan antolatua utzi zigula esan dugu, hain da aberatsa erakutsi nahi duen mundua azaltzeko bere burua idazle egin duen marinela aukeraturiko bidea.

Erregistroetako bat, agian xaloena, kazetari-tza hutsetik gertuen duena du. Batxik han-hemengo berriak ere, ematen baititu, deigarriak egiten zaizkion albisteak, gertakariak. Inongo baloraziorik gabe, ahalik eta era objektiboenean eman ere. Apunte sinpleak dira, jaiotzen ari den mendea iragartzen dutenak askotan: *Egaizkitik uretara*. «Angostenelli eritxon egaizlari bat bere tramankuluaz aixian ebillala jausi zan itxasora egaizki ta gusti. Arin juan ziran jaus-tokira, baña bera ezin ixan eben idoro, bakarrik tramankulua.» (Genoatik, 1914ko maiatzaren 31n).

Albiste laburrok ez dira, gehienetan, albiste huts, ordea. Gertaeren berri, egunkarietan irakurri dituelako du (euskaraz, gazteleraz, ingelesez, italieraz, portugesez eta errumanieraz, behintzat, irakurtzen zuen). Han-hemenka, klean edota ostatuetan entzun ditu. Eta munduko ezein bazterretan dagoela zerbaiten berri duelarik, ezer ez zaio arrotz, etxeko egin nahi du, eta hala lotzen du, hala ikusi nahi du berak behintzat, atzean utzi duen Euskal Herriarekin: *Gomutagarrija*. «Ingalandatarrak *God save the King* abestukeran zutunik eta txapelak kenduta gogoko begijak biurtuta Donokirantz eta euren bijotzak Aberrirantz,



Euzkadi egunkarian argitaratu zituen Batxik bere kronika gehienak

gomutau naz neure urruneko anayakin, zeuekin, euzko-abertzale laztanokin, “Euzko Abendaren Ereserkija” abestu oi dozuenean bardin egoten zarielako.» (Middlesbroughtik, 1914ko irailaren 11 eta 13an).

Batxi kazetaria, nitasunaren kontzientziak egiten du idazle, ordea. Horra nola doakigun idazkera aberasten. Ikaragarria da ikustea gerrak nola aldatzen dion erregistroa, zeinen eder idazten duen egoera gordinenak harapatuta ere. Indarra du Batxiren eskuak. Kirikiño da *Euzkadi*-ko erredakzioan Batxik portuetatik igorritako telegramak jasotzen dituen, baina honek *euzkotar zintzo* ororen-

tzat idazten du. Lekuko da, eta idazle kontzientziak laguntzen dio lotsa galtzen. Kontzientzia hori gabetanik, bere egunerokoa dirudiena ez luke publiko egingo:

Beti gagoz dardargarian noiz joko ete gaituben mina edo torpedoren batek, baña orratño eltzen gara gaueko zortziretan Island of Man deritzon ugartera. [...] Emendik ondiño 100 millako bidia dago Ardrossan’era. Guztijok gagoz atzo baño piskat alayago, itxaso ontan ur loiloyak dagozalako ta uste dogu or loyan itxaspekuak eztilala ibilliko eurak nai daben lez (Irlandako itsasotik, 1915eko apirilaren 24an).

Iragarritako heriotza baten kronika honek balio ukaezina eransten dio idazlearen lanari. Hilabete batzuk geroago, itsaspekoak ez, mina batek bidali zuen Batxiren ontzia, *Bayo*, hondora.

Baina gerra bizi izanagatik, ez da drama lar maite duen idazlea. Gerraren gorrian, bizirik daude bisitatzen dituen portuak. Eta idazleak maite du jende artean ibiltzea, hemen ingelesez, han italieraz, inoiz larri, inoiz umoreko, baina beti zer idatzi ematen dioten gizon-emakumeekin nahastea. Eurengandik ateratzen ditu kronikak, eta bera tarteko eginik, oso hezur-mamizko, inor idealizatzeke, kupidarik gabe erakusten dekoratu ego-kietan.

Umore klabean ari delarik, badu inoiz Kirikiñoren antza pikareskaren trataeran. Pertsonaiak hitz egiten jartzen dituenean, elkarriketetan-eta, igarri egiten zaio gertu duela ahozkotasuren oihartzuna. Etxeko euskararen zantzoak gidatzen du idazlea. Kontalari ona da.

Baina idazkera etengabe ari da aberasten, eta inoiz kostunbrismora jotzen badu ere, uni-bertsaltasuren ateratzen du txokokeriatik. Artikulurik gogoangarrietan, deskripzio zoragarriek ematen diote bidea anekdotari. Idazle delako daki pertsonaiak elkarriketan jartzen, eta idazle delako eransten dio, sarritan, bere gogoeta. Batxik badaki zer den kronika borobilak idaztea.



Jesusa, Marina eta Miren
adinean sartuak



Ideologia

Batxi euskalduna da, eta *euzkotarra*, hala gogorarazten digu berak bere burua kroniketan agertzen duen aldiro. Atzerrian dabilelarik, euzkotar legez agertzen da beti. Ez ditu ez Espainia, ez espainiarrak, ez gainerako herri mediterranearrak gehiegi maite. Goibeldu egiten da haietan dagoen miseria ikusita. Pobrezia, lapurretak, antolaketa eza... Euskal Herriko gizarte eredua datorkio gogora. Ezagutu dituen herrialdeetatik bat aukeratzekotan, berriz, anglofiloa dugu beste ezeren gainetik. Maite du britainiarren seriota-



Sabino Aranaren jarraitzaile zintzoa da Batxi

suna, hauen solemnitatea. Euskal Herrian ikusi nahiko luke abertzaletasun bera.

Europa gerran dago, ordea, eta Batxik ahoz gora egiten ditu gogoetak. Gerrak ez dakar onik, Genoatik, 1915eko ekainaren 3an:

Bijen bitartian gu euzko-odoldunok adi gagoz ludiko laterrijak daruen bidiari, bako-txa bere ereserkijak abesturik or dabiz ilten gudan, eta guda ori noren erruz dan, iñok eztaki, danok bata bestiaren erru emoten dabelako.



Bilboko Euskaldun batzokija, 1894an inauguratua; gobernadoreak 1895ean itxia

Euzkotarra esan dugu, eta euzkotar zintzoa gehitu beharko genuke. Etika eredugarrikoa, istiluetatik urrun dabilena, nagusiarekiko begirunea duena, hala ulertzen du Batxik izan behar duela Aranaren jarraitzaile oro. Aukerak, ez ditu falta. 1914ko udaberrian, Cardiffen direla, lan baldintzak hobetzearen aldeko grebari ekiten diote Maritima Nervion-eko marinelek. Batxi bertan fortunatzen da, Sota konpainian dabil orduan. Ez du inorekin haserretu nahi, baina ez du uste jarrera hori zintzoa denik euskaldun batengan, Cardiffen, 1914ko maiatzaren 15ean:

Nik diñoana ezta besterik euzkotar onagan eztagola opor egitia, ez ugazaben aurke jua-tia, baketsuak eta biarginak garalako ondo begitubak ixaten garalako Ludi'ko toki gusti-jetan.

Ikusten da, bat dator Elizaren doktrina sozialarekin. Ez ditu larregi maite mende berrian indar hartzen ari diren langile mugimenduak. Ondo gogoan du Errumanian izan zen batean gertatua. Espainiako gobernu kontserbadoreak 1909ko urrian Bartzelonan Francesc Ferrer i Guardia katalan pedagogo fusilatu



Eskola laikoaren kontrako mitina Gernikan, 1910ean: Hizlarietan, Barriola (1), Lopez Becerra (2) eta Bilbao (3)



Bizkaiko jeltzaleen bilkura Gernikako haritzaren aurrean, 1912an



Barakaldoko eusko gazteriaren egoitzaren inaugurazioa, 1912an. Batxik dioenez, 215 bazkide zituen Batzokiak

zuelarik, errumaniar langileek Espainiako banderapeko ontzien bila jo zuten portura, protestan. Batxi ahoan legarrik gabe mintzo da. Poztu egiten da armada nola oldartzen zaien ikusita. Kareletik beha ikusten dugu, barre zantzoka manifestari builosoiei (Errumania, 1914ko abenduan):

Sozialista aldrak asi ziran gora-goraka. Beriala urten zan gudarostea txaidera, eta zer? Zarata asko bai etxe-atetatik edo olan, baña zaldi ganeko bat ikusten zanian beriala barrura.

Halakoxea agertzen zaigu Batxi. Ordenuaren aldeko, atzerakoi gai sozialetan, baina samur-

bero langile xumearekiko. Haiekin nahi du tabernan, haien istorioak entzuten ematen du denbora, haien bizipenak ekartzen ditu, azken batean, kronikara. Eta areago, orain arte esandakoak okerrekoa pentsatzera bagaramatza ere, ez du bere idatzietan inor debaldetan mitifikatzen, are gutxiago Europako portu-ostatueta aurkitzen dituen euskaldunak. Honelakoetan, badirudi gizona bitan banatzen dela. Alderdiaren etikak loturik duen militantea dena hemen, libre dabilen jaseko marinela da han. Garaiko beste idazle aranazale gehienak ez bezala, unibertsaltasunak ez ezik, umoreak ere salbatzen du Bilbao.



Eleizalde *Batxi* gaxoa egiten du intziri, bere lagun mina galdutakoan

23

Estiloaz, berba bi

Arestian ere esan dugu: bere garaiko idazle autodidakta da Batxi. Ez du iraganarekiko zorrik, eta ikustea besterik ez dago nola egi-ten duen euskararen hautua jaiotzen ari den mende zaila irakurleari azaltzeko unean. Libre ari da sortzen. Zorra, eta handia, Arana, Eleizalde eta hauen hizkuntza teoriekiko era-kusten du, ortografian eta lexikoan bereziki. Ia ehun dira kroniketan darabiltzan hitz berriak. Arlo guztietarako neologismoak. Orokorrak asko, baina baita itsasoari dagozkionak edota teknikoak ere: *ludi* (mundu), *latera* (atzerri), *donoki* (zeru), *txinel* (polizia), *zei* (plaza), *txadon* (eliza), *izate* (portu), *izbarren* (golkoa), *tarranta* (autoa), *eraingi* (makina), *neurkin* (metro), *anei* (mila), *upakada* (tona), *sutabu* (kanoi), *tximista-eraingi* (dinamo)... Tartean, bereziago zaizkigun beste batzuk ere bai: *Lugarte* (Mediterraneo), *Dipuruba* (Aita Santua), *tximista-madari* (bon-billa)...

Horra zailtasun guztia. Gainerantzean, bere Gernikaldeko euskara da, ura legez, batere

gizenik gabe, erraz, jarioan datorkiguna. Sintaxian eta, oso gertu du ahozko kontagin-tza, eta badirudi egunkariaren inguruan bildu-tako entzule aldraren aurrean norbaitek ahoz gora kontatzeko idatziak izan direla. Honetan, umorezko kontakizun askotan bezalaxe, Kirikiño du maixu, eta bego aztergai mañaria-rra izanik *Euzkadiko* euskal testuen ardura-dun, zenbateraino moldatu zituen honek Batxiren testuak.

Bizitzak ez ezik, historiak bereizi ditu biak. Kirikiñok 1918an emango zuen argitara orduan Bilbo ez zen Abandon bere lehen libu-rua, artikulua gisa plazaratutako lanen bilduma, *Abarrak*. Batxi idazlea, aldiz, Batxi gizonarekin batera desagertu zen. Zergatik ez dakigula, ez du euskal literaturaren historia bakar batek bere izena aipatzen, deskatalogaturik egon da idazleen zerrendetatik.

Horrela jarraituko zukeen ez balitz itsasoan hil. Izan ere, itoek beti egiten dute azalera. Laurogei urte beranduago bada ere.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *Izarra-Bilbao familia*
- *Auñamendi*
- *Sabino Arana Artxiboa*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2003ko urria

Ale-kopurua: 2.500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde

Fotokonposizioa: Gráficas Varona, S.A.
Polígono «El Montalvo», parcela 49 - Salamanca

Inprimaketa: Gráficas Varona, S.A.
Polígono «El Montalvo», parcela 49 - Salamanca

ISBN: 84-457-2027-9 (Lan osoarena)
84-457-2028-7

L.G.: S-***-2003